



Euskararen berri OLAtu gainean

2019ko AZAROKO ALBISTEAK

[Ulerrizketa: gaitasun mugatua dutenekin euskaraz hitz egiten hasteko bide bat](#)

Ulerrizketa metodologia *ulertzaile* eta *mintzatzaile* roletan oinarritzen da. Euskarazko tarteko ulermen gaitasuna duten pertsonen eta hitz egiteko gaitasun ona dutenen artean euskarazko elkarrizketak bideratzeko irizpide eta gomendio sorta da metodologiaren oinarria. 2016. urtetik mota ezberdinetako lantokietan probatua eta garatua izan da.

[Ulerrizketak: Bideoa \(lekukotzak\)](#)

Ulerrizketa metodologia esperimendu duten hainbat pertsonaren esperientziak biltzen dituen bideoa da honako hau.

[Eusko Jaurlaritzak herritar guztien eskura jarri du 'Itzultzaile Automatiko Neuronala', adimen artifizialetik abiatuta herritarren erabilerarako sortu duen proiektu praktikoa](#)

Itzultzaile berria www.euskadi.eus/itzultzailea webgunean eskegi berri da, itzultzaile gramatikalarekin batera. Erabilera oso erraza da. Erabiltzaileak itzulpenaren norabidea hautatu behar du eta, horren ostean, testua sartu behar du horretarako prestatutako gunean. 'Itzuli' botoia sakatuz, segundo bakar batzuetan itzulpena eskura izango du. Itzultzaileak 4.000 karaktere dituzten testuak itzul ditzake erabilera bakoitzeko.

[2019ko Bai Euskarari sariak, Bordatxo jatetxea, ABB Niessen eta Mertxe Mugikarentzat](#)

Bordatxo jatetxea, ABB Niessen eta Mertxe Mugika saritu ditu aurten Bai Euskarari Elkarteak, «euskarari eta euskararen unibertsoari argia, energia eta indarra emateagatik». Antolatzaileek adierazi dutenez, «euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugunontzat erreferente dira sarituak».

[Zazpi egunez Euskaraldiaren Simulakroan murgilduko da Arabako Lautada](#)

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte luzatuko den **Euskaraldiaren** edizio berriaren baitan **berrikuntza** bat ere iragarri dute **Arabako Lautadan**: belarriprest edo ahobizi izango dira "sor daitezkeen arigune berrietako kide guzti-guztiekin", azaldu dute. Euskaraz lasai aritzeko taldea edo gunea da **arigunea**, eta bertan belarriprest eta ahobizi izatea "askoz errazagoa" dela diote. 2019an eta 2020an, entitateek ariguneak sustatu ahal izango dituzte "kideen adostasunarekin". Entitate batean **bi arigune mota** egon daitezke eta dagoeneko ariguneak aurreikusten dira 105 entitatetan, gutxienez.